

## ARTEAREN OINARRIAK II ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea | Itziar Fagoaga Irurtia | Maila | Batx 2 | Ikasturtea | 2020-21

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Lehenengo mailan emandako Artearen Oinarriak I ikasgaiaren jarraipena da. Astean hiru orduko derrigorrezko irakasgaia Arte Batxilergoko ikasleentzat (modalitateko enborrekoa) eta nahitaezkoa haietzako BEUS-en ere (Batxilergoaren Ebaluazioa Unibertsitatean Sartzeko).

Arlo honetan, Erromantizismotik gaur egun arteko arte mugimendu eta manifestazio garrantzitsuenak aztertzen dira diziplina ezberdinetan, hala nola, arkitektura, pintura, eskultura, diseinua eta arte eszenikoetan.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzeko bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.					5	6						
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5		7		9	10		12
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
6) Ekimena eta ekintzailletza.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### EDUKIAK

#### [BATX CURRICULUMA](#)

Edo deskargatu F1503359 eranskina hemen: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

#### [BATX CURRICULUMA](#)

Edo deskargatu F1503359 eranskina hemen: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA		
1.EBALUAZIOA	2. EBALUAZIOA	3. EBALUAZIOA
<p><b>1. MULTZOA</b> XIX. mendea (I). Pintura</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Goya.</li> <li>- Erromantizismoa</li> </ul> <p><b>2. MULTZOA</b> XIX. mendea (II)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Arkitektura</li> <li>- Eskultura</li> <li>- Argazkigintzaren hasierak</li> </ul> <p><b>3. MULTZOA</b> XIX. mendearen azken laurdena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inpresionismoa</li> <li>- Postinpresionismoa</li> <li>- Nabismoa</li> <li>- Kartelgintza.</li> </ul> <p><b>4. MULTZOA</b> XIX. mendearen bukaera eta XX. areen hasiera</p> <p><b>Modernismoa- Art Nouveau estiloa</b></p>	<p><b>5. MULTZOA</b> XX. mendearen lehenengo erdia (I)</p> <p><b>Lehen abangoardiak. Pintura</b></p> <p><b>6. MULTZOA</b> XX. mendearen lehenengo erdia (II)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Art Decó</li> <li>- Moda diseinua</li> </ul> <p><b>7. MULTZOA</b> XX. mendearen lehenengo erdia (III)</p> <p><b>Lehen abangoardiak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskultura- Arkitektura</li> <li>- Bauhaus eskola</li> </ul> <p><b>8. MULTZOA</b> XX. mendearen lehenengo erdia (IV)</p> <p><b>Lehen abangoardiak: Zinema</b></p>	<p><b>9. MULTZOA</b> XX. mendearen lehenengo erdia (V).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Argazkigintza</li> <li>- Komikigintza</li> </ul> <p><b>10. MULTZOA</b> XX. mendearen bigarren erdia (I)</p> <p><b>Bigarren abangoardiak</b></p> <p><b>Eskultura euskalduna</b></p> <p><b>Zinema iparramerikarra</b></p> <p><b>Musika flamenkoa</b></p> <p><b>11. MULTZOA</b> XX. mendearen bigarren erdia (II)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Moda diseinua</li> <li>- Zinema espainiarra</li> </ul> <p><b>12. MULTZOA</b> XX. mendearen bukaera eta XXI mendearen hasiera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekologismoa eta artea</li> <li>- Arkitektura tardomoderno</li> <li>- Teknologia digitala eta artea</li> </ul>

### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Irakasgaia jarraitzeko, irakasleak apunteak banatuko ditu eta azalpenak emango ditu. Horretaz gain, informazioa proiektatutako irudietan, bideo eta aurkezpen ezberdinetan emango da.

Apunteetatik eta beste informaziotik abiatu, ikasleek **laburpenak eta eskemak** egingen dituzte, materia hobeto ezagutzeko eta errazago ikasteko.

**Iruzkinak** egingo dituzte, emandako gidoi bat jarraituz, artelan ezberdinen inguruan. Iruzkin hauek idatziz zein ikus-entzunezko baliabideak erabiliz gauzatu eta ahoz aurkeztuko dituzte. Horrela, arloko hiztegia erabiltzen ohituko dira.

Materiaren apunteak eta zenbait ariketen proposamenak **Classroom** plataforma digitalaren bidez ere ematen dira. Hau ere, ikasleek zenbait lan aurkezteko erabiltzen da.

Ebaluazio bakoitzean **bi azterketa** egingen dira (hirugarrean bakar bat). Ikasturtean zehar egindako azterketek unibertsitatean sartzeko frogaren eredia jarraituko dute (USE-EVAU).

### EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

#### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

**EBALUAZIOAREN NOTA.** Horrela osatuko da:

- % 90 a azterketen batz bestekoa, edo azterketaren nota 3. ebaluazioaren kasuan.

- % 10 a lana (gelan eta etxean egindako lana, iruzkinak, laburpenak, ariketak...), horretarako, irakasleak lanaren kontrola egingen du. Ebaluazioaren batean lanik eskatuko ez balitz, % 100 puntuatuko du azterketen batez bestekoak.

- Lehenengo bi ebaluazioetan bi azterketa egonen dira. Ebaluazioa gaindituta izateko bi azterketen batz bestekoa 5 izan behar da, eta batz bestekoa egin ahal izateko, azterketa bakoitzean, gutxienez, 4 izan behar da. Batz bestekoa 5 edo nota altuagoa bada, lanaren nota gehituko zaio. Azterketak gaindituak ez badaude, lanaren nota ezingo da gehitu. Hirugarren ebaluazioan azterketa bakarra egingen da.

- **Jarrera:** jarrera ona suposatzen zaie, baina horrela ez bada ebaluazioko notaren %10eko jaitsiera ekarri dezake. Jarreraren barnean, jokaera baikorra, irakaslearen azalpenen aurrean arreta edukitzea, materiala ekartzea, puntualtasuna, besteekiko begirunea, etab. hartuko dira kontutan.

#### ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK

**Nota borobiltzea:**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.

- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

**Iruzkinetan eta azterketetako idatzizko garapena eskatzen duten galderetan ondorengo irizpideak hartuko dira kontutan:**

**-Irakasgaiari buruzko ezagutza espezifikoaren maila alderdi hauei dagokienez:**

- Noraino diren adierazgarriak eta zehatzak kontzeptuak eta mugimendu, estilo artistiko edo egile bakoitzaren ezaugarri formal definitzaileak.

- Denboraren koordinatuei buruzko zehaztasuna, mende tartea aipatuz (XIX. mendearen bukaera, XX. mendearen hasiera, erdialdea...)

- Aztergai den estiloa, mugimendua, adierazpen artistikoa eta/edo artista zein testuingurutan den sortua, testuinguru horretan kontuan hartu behar diren faktoreen aniztasuna.

**- Heldutasun intelektuala eta informazioaren tratamendua:**

- Gaiaren hiztegi espezifiko ongi erabiltzea.

- Kontzeptuen ordena, argitasuna eta koherentzia azalpenetan, zuzentasun gramatikala, eta erantzunak ariketa bakoitzaren eduki esplizituei dagozkionak izatea.

## ERREKUPERAZIO SISTEMA

**-EBALUAZIOAREN BERRESKURAPENA.** Ebaluazioa gainditzen ez bada, berreskurapen bat izanen da. Hau, nahiz eta zati bakar bat suspenditu, ebaluazio osokoa izanen da. Berreskurapen hau gainditzen bada, lanaren nota gehituko zaio. Lanaren nota ezingo da berreskuratu. Ezingo da berreskurapenera aurkeztu nota igotzeko.

**- IKASTURTEKO AZKENEKO NOTA** hiru ebaluazioen noten batz bestekoarekin osatuko da. Batz bestekoa egin ahal izateko, ebaluazio bakoitzean 4 bat gutxienez izan behar da, eta hiruen batez bestekoa 5ekoa izan behar du. Horrela bada, ikasturtea gaindituztat ematen da.

**- NAHIKOTASUNA EDO OHIKO DEIALDIA.**

- Nahikotasunean ikasturtean zehar suspenditutako ebaluazioak berreskuratu daitezke. Hirugarren ebaluazioko berreskurapena ere izanen da (egutegiak ez du beste data batean egiteko aukerarik ematen).

- Nahikotasunean ikasturtea gaindituztat emateko, ebaluazioaren batz bestekoa (ikasturtean zehar edota nahikotasunean) gutxienez 5ekoa izanen da, eta batz bestekoa egin ahal izateko, ebaluazio bakoitzean 4 gutxienez izan behar da.

- Nahikotasunean ez da lanaren nota kontutan hartuko (3. ebaluaziokoa ez bada).

- Ebaluazio guztiak gaindituak izanda, deialdi honetara nota igotzeko aurkeztu daiteke. Kasu honetan, ikasturte osoko materia ebaluatuko da, eta nota jaisteko arriskua dago nahiz eta bosteko nota ziurtatua izan.

- **EZ OHIKO DEIALDIA.** Nahikotasunean ez bada arloa gainditu, ez ohiko deialdira ikasturteko materia guztiarekin aurkeztuko da. Azterketa honetan, gutxienez 5 atera behar da ikasturtea gaindituztat emateko. Ez da lanen nota kontutan hartuko.

**- EBALUATZEKO ESKUBIDEA HUTSEGITEENGATIK GALTZEA.**

- Ikasle bat arloko saio kopuruaren %20ra justifikaturik gabe faltatuko balitz, ebaluaziorako eskubidea galduko luke eta Nahikotasunera aurkeztu beharko da ebaluatu gabeko materia guztiarekin.

## KANPOKO EBALUAZIOA

Aipatu den bezala, USEko azterketan nahitaezko arloa izanen da, eta azterketa horren eredu ikasturtean zehar landuko da.